



ESPIRITUAL TASUNA ABIAPUNTU DUTEN BALIABIDEAK

Fitxa honetan, GATAZKARIK GABEKO TEKNOLOGIA gaia lantzean, espiritualtasuna abiapuntu harturik, gogoeta sakon bat egiten lagunduko diguten baliabide batzuk eskaini nahi ditugu. Ezin ditugu begiak itxi munduaren aurrean. Eta ezin gara epel geratu gure inguruko errealitate lazgarrien aurrean.

HASIERAKO OTOITZAK. Bibliako gogoetak

Natura zaintzea

Kreazioa: "...eta guztia ona zela ikusi zuen Jainkoak" (Hasiera 1, 26-31).

Salmoak 104: *Kreazioaren mirariak erreserbia.*

Egindako guztiak Jainko Egilearen ontasunarekin lotzen gaitu, unibertsoaren hasieratik: egindako guztia "oso ona zen" (Hasiera 1, 4.10.12.18.21.25). Horregatik, Jainko Egilearen hatz-markak dituen natura goretsi egin behar da beti (Salmoak 104, 24). Hori sinesten dugu fedez. Eta Jainkoak kreazioaren parte hartu zuela sinesteak xede bat du: kreazioarekin bakeak egitea.

Natura zaintzeak berekin dakar pertsona ahulenen alde egitea ere, eta bere burua eta haiek defendatzea bidegabekeriarik, desberdintasunetik eta naturaren narriadura itzulezinetik.

Jainkoak entzun egin zuen eta bere herriari agindu.

Jainkoak herriaren deia darra entzuten du: *Irteera 3, 7-12.*

Zeru berri bat eta lurralde berri bat: *Isaias 65, 17-25.*

"Jainkoak bere herriaren deia darra eta oinazea entzun zituen, eta Abraham, Isaak eta Jakobekin egindako ituna gogoratu zuen" (Irteera 2,23b-24; cf. 20,16 zenbakiak). Eta aurrerago, Jaunak hau esaten dio Moisesi bere bokazioaren kontakizunean: "Nire herriaren Egiptoko samina ikusi dut, haren zapaltzaileen aurkako deia darra entzun dut eta haren sufrimenduak ezagutzen ditut" (Irteera 3,7; cf. 3,9). Jaunak bere herriaren samina entzun duelako bidali du Moises herria askatzera. Jainkoaren entzute horretatik sortzen da gizakiaren bokazioa.

Hala bada, gizakia Jainkoaren adiskide izateko, elkar entzun behar dute. Jainkoak gure samina entzuten badu, haren hitza entzun –obeditu– behar dugu guk ere. Onespen-jarrera hori da bermerik onena Jainkoaren bedeinkazioa lortzeko (Deuteronomio 28,1-2). Jainkoaren benetakoa lagun diren bi sinestunek adierazten dute intuizio hori: Abraham eta Samuel. Abraham, sinestunen aita, Jainkoaren aingeruak aintzatesten du: "Zure ondorengoen bidez, lurreko herri guztiak bedeinkatuko ditut, nire esana bete duzulako" (Hasiera 22,18; 26,5). Samuelek ere, Eli aholkatuta, argi eta garbi erantzun zion Jaunaren deiari: "Mintza zaitez, adi duzu zeure morroiak!" (1 Samuel 3,10).

ARIKETA-PROPOSAMENA

ZER EGIN DEZAKET NIK?

<http://www.tecnologialibredeconflicto.org/que-puedo-hacer-yo/#anchor-firma>

Naturarekiko sentimenduaren eta gozamenaren oihartzuna taupaka jartzen dugu gure bihotzean. Baina, orainoan, ukitu sozialago, politikoago batekin. Ez da bakarrik natura errespetatzea edo kontserbatzea. Naturaren aurrean, aldaketa pertsonalean eta etika globalean datzan kultura eta espiritualtasunarekin bat egitea da.

Taldean lantzeko proposamenen bat sortzen bada, une honetan jasoko da, berriro ekiteko eta zehazteko. Garrantzitsua da horrelako ideien oharra idaztea, gal ez daitezen; eta gaia taldean lantzen denean, ideia horiek sartzea.

SAKONTZEKO MATERIALAK:

✓ "Sanar un mundo herido".

Denok batera sentitu, gozatu eta lan egin, bakearen, justiziaren eta kreazioaren osotasunaren alde.

Hau ez da irakurtzeko datuak dituen dokumentu bat bakarrik; gogoeta egiteko da, bihotzera iristeko. "Ikusi", "juzgatu" eta "jardun" egiten da honen bidez.

Hemen deskargatu daiteke:

<http://www.ecojesuit.com/respuesta-jesuita-a-los-retos-ecologicos-y-medioambientales-sanar-un-mundo-herido/1468/?lang=es>

✓ Benedicto XVI.a, Bakearen aldeko Munduko Otoitz Jardunaldirako mezua, 2010: "Bakea bultzatu nahi baduzu, babestu kreazioa".

Kreazioaren zaintza, gure erantzukizuna. Pertsona bakoitzaren egitekoa da ingurune natural bat babestea bakezko mundu bat egiteko. Nahitaezkoa da benetako pentsamolde-aldaketa bat, guztiok geureganatu ditzagun bizimolde berriak.

Giza garapen integralak lotura estua du gizakiaren eta ingurune naturalaren arteko erlaziotik eratortzen diren egitekoekin; ingurune hori Sainkoak guztioi egindako oparia da, eta ezinbestekoa da guztiok arduraz jokatzeko gizateriaren, bereziki pobreen eta geroko belaunaldiaren.



ALBOAN

Jesuitek bultzatutako Fundazioa
www.alboan.org

-en proiektu bat



www.gatazkarikgabekoteknologia.org

lortzeagatik



**GATAZKARIK
GABEKO
TEKNOLOGIA**

ESPIRITUAL TASUNA ABIAPUNTU HARTUTA GOGOETA EGITEKO ARGIBIDEAK

Fitxa honetan, GATAZKARIK GABEKO TEKNOLOGIA gaia lantzean fedetik abiatuta gogoeta sakon bat egiteko argibideak bildu nahi ditugu.

Kontua ez da eduki gehiago ikustea, ezta beste fitxa edo saio batzuk egitea ere; kontua da jarduerak aurrez aurre jartzen diguten munduari eta egoera zehatzari so egitea, fedearen begiekin.

Urrats edo argibide hauek iradokitzen ditugu guk; talde bakoitzak egokitu egin ditzake (eta egokitu behar ditu) bere berezitasunaren arabera.

HASIERAKO OTOITZA:

Jainkoaren aurrean jarriko gaituen otoitz batekin ekingo diogu.

Gune hau Jaunarekin egoteko une bat izatea nahi dugu.

Isilune bat egingo dugu. Badakigu gure buruan, gure bihotzean, zarata handia, sentimendu asko, pertsona asko daudela...; isilune hori bilatu behar dugu, ezinbestekoa baita Jaunak esan nahi diguna entzun ahal IZATEKO.

ISILTASUNEAN prestatuko gara, beraz, ELKARGUNE hori lortzeko. Jarrera erosoa bilatu behar dugu, sakon arnasa hartu, gure barnetik zarata atera, eta lasaitu.

PROPOSATUTAKO JARDUEREI BURUZKO LAN.



Fitxetan proposatzen zaigun edukia berrikusiko dugu.



Gatazkari gabeko teknologiaren webgunean:

<http://www.tecnologialibredeconflicto.org/eu/que-puedo-hacer-yo/>
proposamen zehatzak ditugu, jarduteko eta kanpainari atxikitzeko.

ARIKETA-PROPOSAMENA

GOGOETA PERTSONALA:

Gogoeta hau izango dugu abiapuntua:

"... bihotzean aldaketa bat egin behar dugu: gure barneko erresistentziei aurre egin, esker oneko begirada bat eman kreazioari, errealitate zaurituak bihotza ukitu diezagun utzi, gizabanako gisa eta talde gisa konpromisoa hartu, aldaketak sartu gure bizimoduan, eta erabakimenez lan egin maila kulturallean, instituzionalean eta politikoan".

PATXI ÁLVAREZ SJ, JESUITEN JUSTIZIA SOZIAL ETA EKOLOGIA IDAZKARITZAKO ZUZENDARIA, SMH LANAREN SARRERA.

Une bat hartuko dugu Jainkoaren aurrean —Harengandik hurbil— gaudela sentitzeko; entzuteko jarreran jarriko gara, eta egindako jarduerekin ikasitakoaz jabetuko gara. Konturatuko gara elkarrekin otoitz egiten ari garela Jainkoak zer esaten digun eta zertara deitzen gaituen jakiteko.

- 1.- Zer sentimendu geratzen zait jarduerak erakutsi digun errealitatea ikusi ondoren?
- 2.- Zerk eragiten dit poza?
- 3.- Zerk eragiten dit tristura, kezka?
- 4.- Deirik sumatzen dut? Gauza zehatzen bat egiteko gogoia sentitzen dut? Sentitzen dut zerbait egin dezakegula talde gisa?

2., 3. eta 4. galderen erantzunak idatziz jasoko ditugu, partekatzeko.

TALDEAN PARTEKATZEKO:

Askatasun- eta lasaitasun-giroan, pertsona bakoitzak egin duen **gogoeta partekatuko du**.

Taldean lantzeko proposamenen bat sortzen bada, une honetan jasoko da, berriro ekiteko eta zehazteko. Garrantzitsua da horrelako ideien oharra idaztea, gal ez daitezen; **eta gaia taldean lantzen denean, ideia horiek sartzea**.

AMAIERAKO ESKER-EMATEA.



ALBOAN

Jesuitek bultzatutako Fundazioa
www.alboan.org

-en proiektu bat



www.gatazkarikgabekoteknologia.org

lortzeagatik